

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua txakurrak dituzten jendearentzat izango da. Aske egoteko leku bat izateaz aparte, txakurrak ondo pasatzeko ere bada. Txakurrak gustuko ez duen pertsona bat lasai egoteko kaletik edo hondartzan, eta txakurrak duen jendea lasai egoteko gure zelaian.



Proiektua Berangon hasiko da, zelai batean eta 2019ko abenduaren 5rako egongo da prest. Zehazki egongo da azalduta errepideetatik trafiko seinaleekin helmugara heltzeko bidea. Horregatik, txakurra duen mundu guztiarentzat egongo da eskuragarri, etorri edo ezagutu nahi duen jendearentzat.



Txakur mota guztiak sartu daitezke baina ez badira onak, hau da: ez dute kasurik egiten, txarrak eta agresiboak badira beste txakurrekin, jabeek atentzio berezia izan beharko dute, arazorik ez egoteko txakurren artean.

Arraza arriskutsuko txakurrak legez muturrekoa eraman behar dute eta arazoak ematen badituzte lotuta egon beharko dira, gure zelaian. muturrekoa eraman behar dute baina onak baldin badira solte egon daitezke.